# Denbora-




## 1 Ordenatu irudiak

Sua egiteko pospolo bat piztu du Kattalin sukaldariak. Pospoloa hartu duenetik sua piztu arteko irudiak nola ordenatuko zenituzke?

Erantzunak: **1.-** d, b, f, a, c, eta e. **2.-** b. **4.-** b eta g.




## 2 Puzzlea

Arratsalde osoa igaroko luke Saioak puzzleak egiten. Zein zati hartu beharko du marrazkiko puzzlea amaitzeko?



## 3 Labirintoa



Kriskitin sugea erabat maitemindua dago. Bere maitearengana joateko zein bide hartu behar duen ez daki, ordea. Lagunduko al diozu?

# -pasak

## 4 Bikia

Ordulari gorri polita oparitu diote Amagoiari urtebetetzean. Gelako lagun batek berdina du. Aurkitu multzo honetako ordulari bikiak.








## 5 Kopiatu laukiz lauki

Auto berria erosi du Izaskunek, eta argazkia ere bidali digu. Marraztuko al duzu Izaskunen autoa berriro?

## Jolasa

### Zer dago ezkutuan?

Zaku handi batean bost objektu daude gordeta. Zer, baina? Begiratu taldeko lagunak egiten dituen keinuak, eta asmatu!





**1** Banatu jokalariak bi taldetan. Bi taldeetako batek 5 objektu sartu behar ditu zaku batean. Beste taldekoek, berriz, bozeramailea aukeratuko dute, hots, mimika edo imintzioak egingo dituen kidea.

**2** Zaku barruan ikusi duen objektua asmatu behar dute taldekideek. Horretarako, keinuak eta imintzioak egingo ditu taldeko bozeramaileak. Ezin da hitzik egin!





**3** Mimika egiten abila bazara, zakua hutsik utziko du zure taldeak. 5 minutu baino ez dituzue zakuan dauden objektu guztiak asmatzeko; objektu bakoitzeko minutu bat.

**4** Talde batek bere lana amaitzen duenean, beste taldearen txanda izango da. Ea nor den imitatzaile onena.